

# ZARR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

145n. Zenbakia Urrilla

1990




BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



ESTIBALIZKO SANTUTEGIA  
ERROMANIKU-TANKERAKOA  
XII GIZALDIKOA

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ



**1990 - 91 IKASTU RTEA**

**OGEI TA IRUGARRENA**

**IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN  
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

**ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN**

**ORDAÑA: 1 i.000 pezeta**

**IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKERAZALEAK  
COLON DE LARREATEGI, 14-2  
BILBO.  
URRUTIZKIÑA 423.53.22**

**23.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION**

**DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES**

**0 MARTES Y JUEVES**

**HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE**

**CURSO COMPLETO: 11.000 pesetas**

**INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK**

**COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.**

# ERRI ZAPALDUAK: KUBAIT

## GAURKO ARAZO LARRIA

Gizarteko bakea ez da gauza erreza, edonoz eta edonon sortzen dira bakearen aurkako egoerak eta jokoak.

Aspaldiko egunetan larri dauka mundua, Kubait eta Irak'en artean sortu dan arazo larriak: Irak'eko agintari zitalak Kubait txikia beingo baten iruntzi eta beragandu dau.

Ez dakit noraino Kubait eta Irak aberri bi diran, baiña bai eraso-aldi au izan arte laterri bi izan dirala eta Irak'eko Agintari Nagusiak, izkillu-bidez laterri biakaz bat egin dauala, Kubait bere menpean artuz.

Zergaitik ori? Bere ustez bat izan bearreko lurraldea diralako, baiña barru -barruan arrorioaren arazoa. Olako ekintza larrietan beti izaten da barruan ekonomi-eragiña.

Munduko ia aberri ta laterri guztiak jarri dira Irak'en ekintza onen aurka, batez be ekintza orrek izan dauan ekonomi-eragiñagaitik, baiña etxuraz laterri -arteko legeak ekintza orretan zapalduta geratu diralako.

Arazo larria benetan.

## LATERRI-ARTEKO LEGE EGOKIA

Arazo ori aintzat artzeko eta jokabide orren aurka munduko laterriak jarri daitezcan, lege oso egoki bat aintzatzen da: Laterri batek ez daukala eskubiderik izkilluz eta indarrez beste laterri bat beraganatzeko edo menperatzeko.

Lege ederra benetan, gogorkeriaren eta indarkeriaren aurkako legea. Baiña-lege eder ori beste arazo askotan be bete bear litzake. Nondik dator orduan Laterri -aukera edo autodeterminaziñoaren eskubidea aberri batzui ukatzea? Ez ete da ori nai ta nai ez erri batzuk menpean eukitea eta gogorkeriz naiz bigunkeriz, jokabide biak erabili dira Euskalerrria menperatzeko, eta aberri osoak askatasun barik iztea? Uste dot Kubait'en kasua baiño Euskalerrriarena argiago dala.

Dana dala, ezin ukatu bai Europa'ko sortaldean jazoten diranak eta bai Kubait'en arazo larria, Euskalerrriari buruz argitasuna sortzeko bideak dirala. Ez genduke galdu bear aukera au.

## JAUNTXUKERIA TA GUDEA

Gudearen bildurrak eragin aundia dauka aspaldion munduan esandako arazo ori dalata.

Eta guda bat gaur benetan ikaragarria izango litzake. Alde batetik Irak'ek ain ugari daukazan kimiazko izkillu bildurgarriak, txiroen kizi -lerkaia deritxona, eta beste aide batetik Kizi-lerkaiak. Bear ba'da arin amaitzeko guda izango litzake, baiña baita kalte ikaragarriak egiteko guda. Ez al da biztuko su ikaragarri ori.

Or argi ikusten da ez dirala gogorkeria ta guda zuzentasuna lortzeko bideak.

## ANTXIÑAKO OKERKERIAK ZUZENTZEN

Euskalerrrian orretarako lan aundia egin bearrean gagoz.

Laterriak laterri, gure aberria zati bi egin eben: iparraldea ta egoaldea. Eta egoaldean demokrazia edo erri -agintaritzak Alkarte bi egin ditu Euskalerrrian, Naparroa ta Euzkadi.

Eta noz arteztuko dira oker oneik eta lurralde guztiakaz berezkoa dan benetako Euzkadi sortu? Guk ez dogu ikusiko, bear ba'da, baiña elduko da sasoia, gizonak zentzuneratu eta bidezkoa dana egingo daben sasoia. Eta ori ametsa dan bitartean guk erriak, bizirik iraun dagian alegiña egin bear dogu: Iparraldea, Naparroa ta Euzkadi alkar maitasunean bizi daitezcan alegindu, alkar-lana egin dagiela ekonomi -arazoetan, Euzkadi osoaren jakintza indartu, euskerea lurralde guztietan zabaldu... eta ori egiñaz, okerkeriak zuzentzeko bidea egiten diarduguna ba-dakigu.

## ZALETASUNA

### BARRI POZGARRIA

Barri pozgarri bat irakurri dot: Amabost bizkaitarrek osotzen daben gazte-talde bat, eguneroko irribarra ez aitzuteko eta barruko bakea billatzeko, inguruan dauken izadiagaz dendum ta adiskidetasunean bizitea lortzeko alegiñak egiten dabiltzala.

"Bide atalbagea" da taldearen izena eta aste-azken guztietan batzen da, euren bizibideko eginkizunak izten dautsen neurrian, egunsentirako eta euren izadi zaletasuna indarzen dabe, gogoetaz, yoga egin eta nasaitasunean bizi izateko.

### JARRAITZAILLEAK

Nik orain itaun au egiten dot: Biziera on beste iñok jarraitzen ete dau?

Eta ez dakit erantzunik. Olako barririk ez da irakurten albiste-bideetan.

Dana dala, alkarte onen jatorria ta zertzeladak jakitea ondo etorriko jaku.

Asmo au Batxi esaten dautsoen batek sortua da. Nor dan gizon au?

Bizi-izti edo Biolojia'ko irakasle bat. Barakaldo'ko Udaletxean yoga'ren arduraduna, gauzak ikasten eta aztertzen zalea da. Guztiok dakigu "yoga" bidea izan dala, eundak gizaldietan irakasle, osagille eta ertilari asko eta asko sortzeko.

### BATXI'REN ASIERAK

Olantxe asi zan, Batxi'k azaltzen dauskunez: Itaunketak egiteko eta tokiak ikustera joateko guraria, eta ortik sortzen da gure gizarte zuzendu bear daben etika edo oitura- bidea, eta gaiñera yoga'ren bidez, beste ekiñaldi batzun antzera, norberaren oar-ikasiak aztertu egiten dira, eztabaidatu, giza-izaki lez soin-arloko izatasun barrietan ekiteko.

### TALDEAREN ELBURUAK

Taldearen elburu nagusia, sentikerak eta biotz-ikarak billatu eta aztertzea da.

Azterketa-lanak askatasuna eta aukeramen osoaz egiten dira.

Gurariak eragozpen barik ikustatu bear dirala diño, ori ez egiteaz estresa sortzen dalako; berba ori euskertzeko, "artega, urduri, larri eta estu norberaren burua ikustea" dala esan genke.

Norbaiten barruko egoera, griña, esaso-aldi eta indarra geldiazotetik datorrela diño.

Ikuspegi onegaz ikusten eta ikasten dabez sentikerak eta biotz-ikarak, oneitatik urtetan dabelako barrumiñak eta oiñazeak eta oneik arintzeko ekin egin bear dogu.

### NIRE ERITXIA

Orain nire eritxia emon-bearrean nago.

Alde batetik, Jesukristo Abadearen ikasle eta jarraitzaille nazelako, bestetik euskaldun-fededun eta, Sabin maisuak iñoan lez, Euzkadi'ren biotzik erdia Eleizea dalako.

Zer dala-ta entzuten dogu ainbeste "yoga" itz ori?

"Yoga" berbea antxiñako "sánscrito" izkuntzatik dator eta batasun-alegiña esan nai ei dau.

Buda'ren edo Bramanen jarraitzailleen jarduera ta ikasbidea ei da. Irakaste-arauen bidez areik gogobekuntza ta batasun doatsugillera eldu gura dabe...

Ta zer? Ementxe Bizkaia'n Balendin Berro-Otxoa'ren, Jazokunde'ko Martin Deunaren eta Aita Patxi'ren errian, Jesukristo'ren ainbeste jarraitzaille zintzok, lekaide-lekaimeak, misiolari bioztunak eta sutsuak bizi izan jakuzan lekuan sortu bear ete dira Buda'ren jarraitzaille eta gurtzailleak?

Eta gaur oikera dogun yoga ori ete da ohea Jesus'ek mundu guztiko idaztirik ederrena ta baliotsuena dan ebanjelioan diñoskun Zeruko Aitaganako otoi apala ta zintzoa baiño...?

### BIDE ULERGAITXAK

Dana dala, Jaungoikoaren bideak ulergaitzak dira. Gu fededunok, eta sinismena galdu dabenak, Jaunak epaituko gaitu eta bere aurrean zintzoak diranak gaizkatuak izango dira.

Alan eta guzti be, ez ikaratu iñoz, uste ona ta itxaropena izan Jaunagan. Jesus'ek berariz maite izan eban ikasle arek Agerpen-liburu ikaragarrian eta bigarren eskutitzean idatzi eban lez, "zuekana iñor ba'dator au barik beste irakatsi bat ekarriz, ez egiozue agurrik egin".

LETONA'K

## GAYARRE-ZALEAK

ERKOA izena dauan talde batek Erti-giroko gauzai garrantzi berezia, zor jaken lakoa, emoteko guraria dauka. Orain Gayarre'tar Julian abeslari gorengoaren inguruko gaiak barriztatu ta zaindu nai dabez.

Erronkari'ko urretxindorrek erabili ebazan lanabesak dira: Operetan, esaterako Lukrezia Borgiatarra, La Favorita, El trovador, Rigoletto eta olakoak abestu ebazenean, eta bere aldiko margolariak egin eutsoezan margozki-irudiak be or sartzen dira.


Orrez gaifiera, beste betegarri ta osagarri asko ebazan gure abeslariak bere zeregiñetan: ule-izunak, oiñetakoak, ezpatak, burdin-bitxi ederrak...

ERKOA bazkidekoak diñoenez, Nafarroa'ko Jaurlaritzak eta Erronkari'ko udalak mezu eta lanbide on onartu dabe eta emoten jako Julian Gayarre ospetsuaren eriotza-oroipenari zor jakon garrantzia, eungarren urtean.

Gayarre abeslari ospetsuaren Erakustetxeari ospea emon gura jako, abeslariaren nortasuna disdiratsu geratu daiten eta ikertzaille ta ikuslariak sei eungintzazko jantzi eder ikusi al izango dabez. Jantzi onek len izan eben itxura eta orain daukena alkarren parean ipiñi ezker, aldakuntza ikagarria izan dabe. Egiz diño, eta sinisgarri dira, Gayarre abeslariaren soiñekoakaz ardura aundiz eta txeraz lan egin bear izan dala: loiak alden-du, eun oial eta urrezko orratz erabili bear izan dira, eta gero lan berezia giza-irudietan.

Eta orrelan, gure zeregiña amaitu dala uste dozue?

Ez oraindiño. Aurrerantzean alboko lanak agertzen jakuz, metalezko gauzak garbitzea, esaterako, eta gero dana zaintzeko aterpe egokia zaindu.



Esan dogun guztia ERKOA'ko batek azaldu dausku eta berak erakutsi dausku zati bakoitxa, oraindiño lan-tegian itxaroten dagozenak be bai, Erronkari'ko erakustetxera eroateko zain.

Ba-dakizue zenbat Iauerleko eralgi diran erakustoki on egiteko? Oraingoz 17 milloi. Ori Nafarroa'ko Jaurlaritzak, Erronkari'ko udalak eta abeslariaren oiñordekoak lagunduta.

Julian Gayarre-ren gauzak ikusteko aukerea Bilbo'n be izango da.

EGILUZE'k

## ZORNOTZA'KO SENAR-EMAZTEAK

Larrosia'tar Mari Tere eta Barrena Santi jauna, Zornotza'n dan Euba'ko Erkole baserrixuan bizi dira.

Euren etxea bizitza bikoa da eta ez ain aundia, ur bitarako teillatua dauala. Etxe-aurrean olezko jesarlekuak dagoz. Ementxe ikusi nebazan iru illebeta dirala, eta neure artean esan neban: "Oneixek bai Euzkadi'ko senar-emazte egokiak, eurai buruz zerbait esan bear dot gure aldizkarian.

\*

Emen ez dira bizi izan beti ezkondu ziranetik. Eme-retzi urte baiño ez.

Ona etorri baiño lenago, bederatzi urte Derandegi, Amorebieta'ko baserri goi baten bizi ziran.

Berrogei ta amar urte dira Zornotza'ko Karmeldarren txadonean ezkondu zirala. Ezkonduta gero Mari Tere'ren etxera joan ziran, Amorebieta'ko Boroa auzunera.

Euba'k ez dauko lantegirik, biltegi edo almazenak bai ugari, orreitan eta inguruko lantegietan egiten dabe Ian gizon guztiak.

Auxe bai ba-dala Euskalerraren zoriona. Euskaldunak beti dakie lantegiak egiten eta lantegi-buruak izaten. Guri esaten dauskue: "Zuek langintzan gauza bat baiño ez daukazue" eta guk erantzun: "Bat naikoa ba'jaku, zertarako arduratu beste baten billa". Eta gaiñera dirurik geien emoten dauna ba'da, obeto gagoz geure arloan.

Teresa'ren senarra, Boni, ez da Boroa'koa, Kimera izena daukan beste baserri batekoa da. Ondo irabazia dauan zar-sariaz bizi da gaur, baiña ez alperkerian, ez orixe.

Senar-emazte bien artean Ian egiten dabe, baketsu, pozez eta atsegiñez, Erkole'ko euren etxe-inguruan, solo, zelai, abere eta larrak zaintzen. Astotxu bat be ba-darabille beientzat bedarra ekarteko, erremoltxak, arbiak, frantzesa, ekarteko, satsa ta gauza astunak tokiz aldatzeko.

Antxiñako esaereak diñoanez, "astoak bai jakin noren arpegirantza arrantza egin". Asto onek be arrantza egiten dau gose danean, eta bere jabeak artaburuak ekarri eta emoten dautsozanean, pozez beterik aldatzen dauz zelai-alderdiak. Ez ete dira ekolojiarentzat onuragarriak astoen arrantzat eta beien morrozak?

\* \* \*

Mari Tere ta Boni kristiñau egilleak dira: Domeka ta jaietan mezara joaten dira, Pazko-aldian autortu ta jaunartu be bai. Zorionez asi dabez euren seme-alabak.



Zornotza'ko senar-emazte eredugarriak urrezko eztegua ospatzen.

Kristiñau-bidekoak diran ezkerero, Bizkai'ko baseririk geinetan lez Jesus'en Biotzaren burdiñezko irudia dauke ate nagusiaren aurrean.

ZER aldizkari onetan, orain urte bi inguru, esan genduan lez, Mari Tere'k Joan-etorri bat egin eban Ipar-Amerikara, Idaho'ra, bere nebeari ikustaldia egiteko. An dago bere nebea beste euskaldun askoren artean, emengo neskatilla bategaz ezkonduta. Biak aurkitu ebezan osasuntsu eta beargin. An ez da orain lenagoko beste errez dirua egiten, arduraz eta nekez jokatu bear dabe.

Mari Tere'ri berariz itaundu neutson:

—Gogoratzen jatzu zeure bizitzako jazokizun bereziren bat, ZER'en irakurleai esateko?

—Bai, Jauna. Esango dautzut: Franco Bizkai'ra bere gudariakaz sartu zanean, umeak eta zarrak batera, Bilbo'ra urten bear izan gendun, gogoan daukat larri ta estu ibilli giñala, gaiñera erderazko berbatxu bat be jakin barik, ni zortzi urteko neskatotxua nintzala, nire inguruko guztiak erderaz berba egiten ikusirik. Bilbo'n bizi izan bear nintzan, nire amamaren nebea zan abade baten etxean. Baiña sarritan entzuten zan adar-otsa eta egazkiñak agertzen ziran lerkaiak botaten eta Bilbo'tarrakaz estalpeetara joan bear izaten gendun. Boni amar urteko mutil kozkorra zan eta orduan berau be Bilbo'n egongo zan, baiña ez dautsat iñoz on berari itaundu.

Orain biak bizi dira, ardura asko barik, poz-pozik, Jaungoikoari eskerrak emoten.

LETONA'k

# INDARKERI BERRIAK: ERRIA AITZAKI

"Guria da eta guria  
guria da eta erria..."

Erria da gauza guzieren jabe. Erria da eskubide guzieren iturburu...

Totestimoa zaarra da.

Leen-gizonena: prehistorikoa, alegia. Erri oso atzeratuena.

Totem animalia baten irudia da eta tribu bakoitzak bazuen bere totem berezia.

Animalia on zegoen tribu guzieren sortzean eta bera zan tribuaren zaintzaille eta erriaren eskubide guzieren iturburu...

Zaarrak berri.

Animalia orren irudia galdu degu, baiña totemismo berri batean gaude murgildurik.

Totem berria zein dan?

Erria.

Erriak ditu eskubide guziak, eta on asko ez dala, erria da eskubide guzieren iturburu ta sortzaille.

Orra gure sukaldean indarkeri zaarra berriturik; totemismo berri bat sortu...

Nundik eta nora kutsutu gera diktadura berri onekin?

Ingurutik. Gure ingurua, aspaldi ontan, diktaduraz beteta ikusi izan oi degu: Europa zaarrea batez ere, bere ikastola nagusietan Estadia dala eskubide guzieren iturburu erakusten izan bait da aspalditik...

Estadia nor dan jakin bear, ordea. Ni naiz Estadia, esango du Frantziako errege diktadore batek... Neure partidua da Estadu erantzungo dio geroago Hitler'ek eta neu partiduaren buru... Mussolini'k, Stalin'ek eta abarrek beste orrenbeste esango zuten...

Indarkeri aukeratu aurrean izan ditugu beti. Argi ta garbi azaldu zaizkigu beti.

Gaur eguneko diktadura ta indarkeri berria maltzurragoa da, erria artzen bait du aitzaki...

\* \* \*

Ona aitzakia:

Nor dala esango zenduteke erri ori?

Erri osoa? Ez.

Erri osoa "masa" utsa dezu. Ori ez da "erri". Orrek ez du erriren "konzientziarik"...

Zein da ba erri?

Gu geu gera "erri", "konzienziatuok", alegia.

Erri geranez, geuk dauzkagu eskubide guziak, danak eta osoak. Geu gera eskubide guzieren iturburu... Ta "masa" zeratenok ("masa" zein zeraten esateko ere geuk daukagu eskubidea) zuek gure esanetara bearko dezute...

Erriaren itxura, demokraziaren jazkera, baiña Hitler eta aren kidekoen anima.

Orretarako ainbeste istillu?

Pentsakera auen erroak XVIII'ko gizaldian sortu zan Argikuntza edo Ilustrazioan aurkituko ditugu. Ilustrazioaren argiak salbatuko du gizadia, erriak parte artu gabe. Ortik sortu zan Despotismo Ilustrado: illunbeetan dagoen erri itsua argidunek salbatuko dute. Iraultza onen emaitza despotismoa izan zan, errege eta agintari guztien indarkeria indartuz.

## UMEAREN KRISTAU-EZIKETA DALA TA...

Urlia ari zan izketan batzar batean:

—Ez dezute umeak kristau-ikasbidean sartu bear... Ez diozute kristautasunik erakutsi bear... Beurak aukeratu bear dute eta zuek, gurasuok, beuren esanetara egon bear dezute... Bla, bla, bla...

Eta ume askoren ama dan erriko andra zentzudun batek erantzun:

—Nere seme-alabeen esanetara egon bear detala...? Zuk gauza orren berri ez dakizu ondo: nere semeak, alabak ez ezik, naiago dute mendira eskolara baiña... Orduan, zer...? Mendira botako al ditut beorrekin batera...? Gaixo daudenean, injezioa baiña naiago dute txokolatea txurrokin. Penizilinan ordez txokolatea emango al diet... Eta muturrak garbitzeko ze arrantza egiten duten bazekizu...! Garbiketara ordez txerri-kortara botako al ditut...? Narro-gorri eta oiñutzik erabiliko al ditut ala jantzita...? Gerora zer naiko duten ez bait dakit...

\* \* \*

Moda zulodun zaku zaar aundi bat omen da, zion gure amamak: azpiko zulotik atera eta gaiñean jarri... Orra modaren jokabidea.

---

## ERRIA

---

Gure Euskalerrietan orixe ari zaigu gertatzen: orain berrogei urte modan zeuden trapu guziak ari zaizkigu azaltzen. Orduan argi ta garbi idazten zana, bai aldizkari bai liburuetan, orain aoz-ao eta gauza oso berria baliz bezela esaten zaigu.

Alde bakar bat ikusten det ordutik onera eta auxe da: orduan gauza oiek erderazkoak ziran, "hay que dejar al niño elegir su religión, antes como vascos que cristianos, más justicia y menos caridad, eta abar..." Gaur, berriz, oiek euskeraz esaten dizkigute...

\* \* \*

Gauza oiek gure artean oso zaarrak dituzu. Oieri erantsutekoak ere bai. Oiek esan nai ba dituzu, esan...

Baiña, erri-zale zeranik, mesedez, ez esan.

### EUSKALDUNEN ALIENAZIO BERRIA

Berria ezezik, zaarra ere...

Sorginkerietan murgilduta bizi ziranak, aiek zituzten Aker Beltza'rekin artu-emanak...

Sorgiñ eta azti ez dira berdin.

Aztiak eta aztikeriak zaarretakoak dituzu Euskalerrian; leize-zuloetako orma-marrazkien denborakoak. Zulo aietan zituzten euren santutegiak azti euskaldunak. Baiña, an ez da agertzen Aker Beltzi, kasualidade utsez ez bada. Aker Beltza sorgiñekin batera ekarri ziguten gerorago.

Aztikeria majia da.

Sorgiñak, berriz, sorginkerietan ibilli oi zira: amesetan olioen bitartez, akelarretan lizunkerien artean... Aztien eginkizuna ere artzen zuten, baiña, bazuten zer edo zer gañetik eantsita: akerra ta akelarrea, Aker Beltza...

Aztiak eta aztikeriak Edezi-aurrekoak ditzuzu; prehistorikoak, alegia. Franko-Kantauri-Kulturako garaikoa; Santimamiñe eta Ekain'en garaikoak; Altamira eta Lascaux'en garaikoak... Amar milla urtetik gorakoak...

Kultura ura Auñamendi-inguruan zabaldua zegoan eta gaur eguneko Euskal-erria zan, aiñ xuxuen ere, Kultura orren ardatz eta zilla...

Aker Beltza, akelarreak eta beste era ortako sorgiñ eta sorginkeriak berriagoak dituzu eta Europa guzian zabalduak... Euskal-erri'ra erbestetik etorriak, noski.

\*

Aker Beltza'ren berririk zaarrena erromatarren garaikoa da eta erromatarrek menperatutako lekuetakoa...

Jainko txikieri erromatarrek eskeintzen zizkioten ar-losa (Iñpida) oietako bat AHER BELSE'ri eskeñita dago.

Orra euskerazko idaztietan agertzen dan H'rik zaarrena. Eta H on erromatarren belarrietarako K zan: AHER = AKER...

AKER BELTZE'k ez zien erromatarreri kalterik egiten.

Kalterik ez, baiña, euskaldunak menpean eukitzeko laguntza bai, ematen zien Akerrak, bestela ez zioten aldararik jasoko Euskalerrietan... Akerrari ipurdian musuka ari ziran artean (euskaldunak, alegia), erromatarrek uztu zituzten emengo minak, emengo miak, emengo zillarrak eta mengo burniak...

Bitartean euskaldunak akelarretan, aleinatuta lo-zorroan...

Zapaltzalleen egitura.

Beti jokatzten zuten berdin. Ez da aldaketarik izan. Aker Beltzari aldare eta illunbetako elizatzakoak jaso... Gaztedia bide ortatik dabillen artean, lo lasai egingo du erromatar zapaltzalleak... Sexokerian indarrak galtzen dituan gaztedia zertarako da gal...? Loietan etzanda lo-zorroan egoteko, odola ateratzen dieten bitartean...

\* \* \*

Ori erromatar zapaltzalleak egitea bidezkoa deritzait... Askatasun billa dabilzatenak (mingañez, beintzat) bide orretara jotzea, orixe bai ezin detela neure buruan egosi... Nundik nora jarri lezaioke gaztediari Akerra askasun-bide bezela...?

Alienazio aundiagorik Aker Beltza'k, berak ere, ez luke asmatuko.

Orixen bai dala erromatarrei joko egitea.

Begi argiz edo itsumenez.

Jokoa, beintzat.

### ARRAZOIAREN INDARRA ta INDARRAREN ARRAZIOIA

#### Giza-emakumeen jatorrizko esku-bideak:

Sortzetik ditugu eskubide batzuek eta ez du iñork guri eskubide oiek kentzeko eskubiderik: iñork ere ez.

Ezta indardunak ere...

Gizon eta emakume osoak, beteak izateko egin giñuzen egifi giñuztenak...

Osoak izateko, ordea, gauza asko bear ditugu, naiz kanpotik naiz barrutik begiratuta:

gorputz edo soiñ bat degu gurekin;  
gorputz orren barnean badegu anima ere kanpora begira...



Soiñak soiñekoak bear.  
Animak animakoak.

\*

### Soiñekoak:

Soiñekoak ez dira jantziak bakarrik: soiñekoak ditu-  
zu jana ta edana, etxea ta seksu artu-emanak...

Oiekin bakarrik konforme ziñake...?

oi Txakurrak berak ere zer edo zertxo geiago eska  
du: bere nausiaren maitasun apurño bat...

### Animakoak:

Jakin-miña ta nai izateko aukera... Orra bi gauza  
bearrezko animarentzat jakiñ eta nai; burua ta biotza;  
entendimentua ta borondatea; jakinduria ta libertatea...

Gauza asko daude munduan jakin-bearrezkoak eta  
oiek ezagutzeko eskubidea gurea da jatorriz... Jakite on  
ukatzea, jakite on gizonari eragozte, gure jatorrizko  
eskubideak zapaltzea litzake: egia ukatzea edo egiaren  
bideak gizonari itxitzea, on izadi-aurkako pekatua, oke-  
rra, da... Ori jatorrizko eskubideak zapaltzea da, zuzen-  
tasuna oinperatzea; indarkeri utsa...

Aukeratzeko aalmena ere eman zigun Egilleak gizo-  
nei: libertatea, alegia... Libre izateko jaio giñan... Liber-  
tadeak ba du bere esi-barrua, baiña, gure askatasunera-  
ko bideak kentzen ba dizkigute, gure eskubideak zapaltzen  
dituzte: zapaltze-klase guziak dira indarkeri... Eta gu  
persona izateko, emakume edo gizon osoak izateko,  
gure libertade-aalmena erabiltzea bearrezkoa zaigu, bes-  
tela animalia-maillatik ez giñake igoko bat ere...

Gauza asko daude aukeratzekoak mundu zabalean...

Batez ere politika ta sozioloji-gaietan:

Batzuk usten dute batek agindu ta beste guziak  
itsu-itsuan obeditzea dala erarik onena gauzak gizar-  
tean ondo joateko: sei urtekoen ikastola baten bezela...

Beste batzuk, berriz, bestela nai dute: gauza bakar  
bat erabakitzeke, bakoitzaren gogoia jakin bear dala,  
erabakia artu aurretik... Baiña, zenbait buru ainbat txap-  
el, zenbait buru ainbat pentsakera eta ez dira denak  
batera etortzen... Erremedioa? Geienen esanera bes-  
teak etortzea...

Zenbaitzuk nai luteke denok alkar mutur-joka jarri  
ta indarrik aundiña duenak, bera nagusi ta besteak  
zapaldu...

Ez da paltako anarki osoa nai lukena: ez lege ta ez  
erregela, iñork agintzeke...

\* \* \*

Modu asko dira eta bakoitzak berari dagokiona auke-  
ra lezake, baiña, (beti da `baiña'ren bat) iñoren esku-  
-bideak zapaldu ta oinperatu gabe: orra gure libertadea-  
ren esi-barrua...

Nik indarra nai ba det nagusi, boxeora jotzea beste-  
rik ez dut: ortxe emango didate lagun-urkoari muturrak  
puskatzeko aukera ugari; baiña, pakean bere bidean  
dijoan gizonari mutur-joka astea giza-legea danik ez  
nuke nik esango...

Nik anarki utsean bizi nai badet, noan basamortura,  
an ez bai du nere askatasun osoak iñoren eskubiderik  
zapalduko... Zeure eginbearrak egiteko gogoia daukazu.  
Zoaz bakardadera ta egin nai dituzunak, zeu zera zeure  
buruaren jabe ta, baiña, ez asi kale-erdian, iñoren aurrean,  
bere eskubideak zikinduko dituzu ta...

Neuk nai det nagusi bakar izan; besteak nere men-  
de ditezela ez buru ta ez borondate... Ederki, gizona,  
erosi zazu Aprikan tximiño-talde bat ta ekiñ egun san-  
tu guzian aieri aientzen, ez bai dute askatasunik eta...  
Baiña kalera irten eta kalean dijoan guzia nere mende  
jarri naia, ez al litzake on besteen eskubideak zapaltzea...?

\* \* \*

Ni neu libre egin nau Yainkoak; nere inguruan bizi  
diran gizon-emakumeak ere bai, ordea... Nere eskubi-  
deen ezi aien eskubideak...

Neure eskubideak zaintzeagaitik iñorenak zapaldu,  
on ez da sekula giza-legea izango...!

Orrela jokatzeko giza-legea ez ba da, kristau-legea  
gutxiago oraindik...

Kristau guziak ez dabilta giza-legetik, beti beintzat;  
alaz, ere, kristau-legeak giza-legea du oñarri: justizia ta  
zuzentasuna...

Giza-legerik betetzen ez duan kristaua ez da sekula  
kristau ona izango, santu itxuretan bizi arren... Baiña,  
justizi ta zuzentasun utsak ere oso legor ta gogor gerta  
litzazke gizar-tean (justizirik gabe legorrako ta gogorra-  
go, jakiña dago): lanerako makina ajustatua bear du  
(`ajustatu' justiziaren arauera esan nai du), baiña, tar-  
teak justu-justu ba daude batera olgurarik gabe, makina  
ez da ondo ibilliko... Erre egingo litzake olio ugari  
jartzen ez ba' diozu tarteetan, juntura guzietan...

Justiziaren gaiñeko maitasuna, makina ondo ajusta-  
tuaren olio dezu.

Orra arrazoiaren indarra gizar-tean nagusi: justizia ta  
maitasuna alkarrekin ba'dira.

## II

# "EUSKERA...? EZ DA ILKO"

Automobil batean giñan iru gizaseme.

Baserritarra bat, erdaldun gastea bigarrena ta irugarrena ni.

Euskera genduan gai.

—"Nola leike euskalduna izan da erderan aritzea? Gure aurrekoetatik orrelako aberastasun ederra artu ta itxasora bota...!? Euskera zapaldu nai dutenak ba-dira (bai euskaldunak ere), baña alperrik dabilta, Euskera ezta ilko!!!".

Berari begira begira nengoan.

—"Nungoa zera?" Galdetu nion.

—"Baserritarra naiz. Idahon zazpi urte igaro ditut eta antxe ikasi det Euskera maitazen. Ikustekoak dira an zer Ian egiten dituzten Euskera gordetzeko, ta bizi-rik irauñ dezan. Ta emen, Euskalerrian!, oinperatu...!? Ez, eztago ortako eskubiderik.

—"Izan ere-erantzun zuan erdaldunak euskeraz-ez det konprenditzen euskalduna izan da erdera nola erabilli leiken...

—"Baña zu erdalduna zera", eraso nion.

—"Bai erdalduna naiz, baña ume nintzanetik amalu urte betetzerarte baserri batean bizi izan nintzan... ta gaur gustora egiten det euskeraz..."

\* \* \*

Nerekasa nengoan pentsatzen Idaho'ra joan bear ote genduan guztiok Euskera maitatzen ikasteko...!

Naaspilla gogorra sortzen ari zaigu aspalditxo onetan: erdaldunak euskeraz ta euskaldunen semeak erderaz...

Euskalerrian badira (bat baño geiago) senar-emazte zaarrak, alkarrekin erdera motrolloan ari diranak.

Ezagutzen ditut pare batzuk.

Zergatik ori?

Euskera kategori gutxikoa dalako, euren iritzian...

Euskera ta politika naasten dituztelako...

Euskera dala ta euren bizitzetan ezbear asko eraman izan bear izandutelako...

—"Oye, Joxepa Iñasi, traeme los pospolos para quedar pipa", zion Joxe Ramonek bere berrogei urteko emazteari.

—"¿Dónde están?".

—"En la calicaciOn de la chimenera".

("En la chimenea de la calefacción" esan nai zuan gizajo arek.

Orrelako ateraaldiak ez dira antzerkitan bakarrik entzuten, euskaldun artean ere bai...

Zergatik Naparroa'ko ballera askok euskera utzi ta erdera artu izan dute bat batera...?

"Ez bai du ezertako balio..."

\* \* \*

Gure gizartea erderara eginda ba'dago, gizarte on aldatzen alegiñak egin bearko ditugu "baldin gure zañetan odolik badegu"...

Eta bitartean euskaldunak, bere burua defenditzeko aña erdera, jakin dezala...

Baña ez jakingarriak erderaren bidez ikasita!

Ori, ez!

Jakingai guztiak euskaldunak euskeraz ikasi bear ditu.

Ikastola euskaldunetan bear ditu ikasi.

Eta gañera erdera erabiltzen ere bai, bere burua parregarri ikusi ez dezan gure gaurko gizarte burugabe-ko bedeinkatu ontan.

Gai oneri buruz negar egitekoa da.

Gizaldiak joan, gizaldiak etorri, euskaldunen eskubi-deak ez ditu iñortxok ere betetzen. Eta on gaitzerdi litzake eukaldunak eurak eskubide oiek eskatuko bali-tuzteke. Ez gera orrenbesteraño eltzen. Alabeardakoan ixildu ta egon.

Konforme algera morokilla janda?

Sakela betetzea naikoa al degu?

Ala bada, probetxu deizula!

\* \* \*

Baña ume euskaldunari jakingaiak euskeraz erakus-tea, Yainko'aren Legeko sustraiean dagon gauza da! Gizasemeak jaiotzean berakin besaspian dakarren esku-bideetan lenengoetakoa!

Eskubide oiek zapaltzen dituan gizartean zuzentasu-nik ote leike Zuzentasuna, nun?

Euskera ilko ez bada Idaho'ko artzaiaren antzeko asko bearko ditugu.

—"Euskera, ez ta ilko!"

Guk nai ez ba'degu ezta ilko, bañan baserrietan Euskerarik maitatuko ez balitz, elbarri ta gaxo geldituko zaigu... Baserri askotan maitatzen dute Euskera (bestelakoak ere izan arren), baña ondo begiratzen badiogu, erederaz ere tajutzen diranak dira geienentxoetan.

—"Para Pili del caserío Arat-erreka de Amboto, "Espasmo" de Viriato Rebollez". Orrelako zentzungebakeriak ez aldituzu radioan entzun, gure baserritarrak eskatuta?"

Ez da aurrenekoa izango, erritik kanpora bi urte neskame pasata, errira etortzean, erderakazoka ekiten dutenak... Sortzez euskaldunak diran askok biotza pipiak jota daukatela uste det, gai oneri buruz...

Zer poza nerea oker ba'nego!

\* \* \*

Gizaldietan zear baserria izan da Euskera ta euskal oituren Ikastola Nagusi ta Unibersidade. Berari eskerak gera gaur euskaldun.

Gure gizartean, oraintzurarte, baserria zan jaun da jabe.

Etzan erderarik bear.

Bada gaur kalea nagusi egintzaio ta kalean erdera da jaun da jabe... Eskola eskasenean ere erdera da nagusi... Ez dio Euskerari sartzen usten ezertako ere...

Elizatik kanpora nun du Euskerak bere giroa?

Ez toki askotan...

\*

—"Ez da ilko!"

Baña artarako bearrezkoa da lenengo Euskera ikastoletara eramatea. Ta bigarren, ume euskaldunak euskal ikastoletara eramatea... Postutzen nau biotza euskal ikastoletan erdaldunen semeak ikusteak. Nik baserritarrak nai nituzke ikusi.

Samiña da: gure euskal ikastoletan baserritarren umerik ikusten ez.

Oker banabill, errutik atera nazazute euskal ikastoletako andereño oiek. Zuek dakizute zer klasetako umeak dabilzan gure ikastoletan.

Ez diazute esango baserritarrak ez dutela euskal ikastolen bearrik euskeraz badakitelako...

Euskal ikastolak kultura euskeraren bidez emateko dira, ez Euskeraz ikasteko bakarrik ta gure baserritarri kultura ta jakingarriak euskeraz artzea iñori baño geiago konbeni zaie ta iñork baño probetxu geiago atera ere bai.

Orduan bai esan genezakegula lasai:

—"EUSKERA EZTA ILKO!"

ANES-1966

### III

## EUSKERA, IL BEAR OTE DEZU?

Askotan entzun izan degu "Patxi Tellatu"ren istorioa: egoaldetik etorritako semea (Francisco Tejedos). Euskalerrian bersolari.

Iazkau'ko erriak ondo daki orren berri. Bai "Lazkao-txiki" k ere.

\*

Gaur emen kaso baten berri eman nai nuke. Amalau urte bete berriak ditu:

—"Zer dezu izena?"

—"Lorenza Bravo".

—"Nungoa zera?"

—"Extremadura'koa".

—"Zertan zaoz eman?"

—"Dotriña erakusten".

—"Zeñeri?"

—"Ume euskalduneri. Bost edo zeï urtekoak dira".

Orain arte esan deguna ez da arritzekoa. Lan ori askok eta askok egiten dute gure elizetan. Baña Deba'ko eliz bastertxo batean Dotriña erakusten dagoan neskato apal ori, extremeñoa izada, Euskeraz ari da Dotriña erakusten. Euskaldunen umeai erakutzi ere, alajafietan!

Ez al da ori txalogarri?

—"Nun ikasi dezu Euskera?"

—"Iziarren".

Bejondeizula, Iziar!

Betiko lelora gatoz orain ere.

Erdaldunak euskeraz erakusten ari diran artean, eukaldunen semeak, zer?

---

## KEZKAK

---

Utzik gelditzen diran baserri askotan erdaldunak sartzten ari dira...

Guk ezagutzen degun kondaira guztian ez da beste orrenbeste gertatu...

Baserria izan da Euskalerrian bere mami, sustrai, gordeleku izkutua ta itur-buru...

Gaurko egunean erdaldunak sartzten an zaizkigu itur-buru ta euskal biziaren sorleku ortan. Gaitz erdi Euskera ikasten ba dute. Izan leike erdera Euskalerrian muñetan sartzea betirako!

Dana dala, soziolojiko garrantzi aundiko gertaera dala uste det. Iñoiz Euskalerrian kondaira egin bear baldibada, beintzat.

Ona Soziolojiko tesis batentzako gai egokia:

Zenbat baserri ustu dira aizkeneko urte auetan?

Zenbat oietako baserri, erdaldunetz bete dira?

Aldaketa onek, beste zer aldaketa ekarri dizkigu berarekin?

\*

Korapillo ta problema asko ditugu gaur gure errian. Etorkizunari begira, ez da esandako au txikienetakoa izango'.

Baserriak iturburuak bezela izan dirala beti, esanda daukagu. Iturri oietatik sortu dira beti euskaldunak, euskera ta euskal oitura ta euskal izatea ere, kaleak irentsi ala...

Beti kimu berriak giñuzten.

Iturburutik zetorren ur garbia eten gabe... beko zelaie-tan zikintzen bazan ere.

Gaur itur burua ari zaigu galtzen.

Azitokia, ondatzen.

Guregana etorrira, euskera ikasten duten erdaldunak, txalogarriak dira, egitan...

Zoritxarrez, ikasten ez duten asko ere ba dira.

Zergatik eta zertarako ikasi?

Euskaldunok, geurok, galdera on geure buruari egiten ba diogu, nola ez diote ba egingo erdaldunak!?

\* \* \*

Guk arrazoibidea badegu Euskerari eusteko, gure aurrekoendik artutako aberastasun bat ba da...

Gure Euskal izate guztia aberastasuna da. Gaurko egunez batez ere.

Kultura gai asko ia berdiñak dira mundu guztian, trokel batetik sortuak ba'lira bezela. Donostian egiten diran etxeak eta Viena'koak, antzekoak dira... Oiturak, jazkerak, janak... danak berdiñ.

Laister munduak ospizio baten antza izango du.

\* \* \*

Gizon guztiak gera sustrai ta sakon-sakonean berdiñak... Baña ez daude bi arpegi berdinak, ez bi beatz-arrasto antzekoak ere. Norberetasuna ordetzea, aberastasuna da mundu guztiarentzat. Gure erritik kanpora bagoaz, gure errian ez dauden gauzak billatzea degu gogoko. Gogoko degu erri bakoitzak norberetasuna gordetzea...

Lora-mota asko daude.

Fundamentuzko gauza geienak lore guztiak berdiñak dituzte ta edertasuna ere bai: denak dira eder.

Baña lora batetik bestera aide asko dago. Danak eder, baña lora bakoitzak bere edertasun berezia...

Ez ditugu olandarrak abarkakin ikusi nai.

Ezta gure baserritarrak txokloakin ere.


Bakoitzak bere oñetakoak gordetzea ez da iñontzako kaltegarri. Danentzako aberastasuna baizik.

Gure aberastasunak mundu guziko aberastasunak dira. Gure erruz galtzen badira, mundua pobreago izango da gure kulpaz.

Euskera ta gure izate berezia gordetzeak ez digute patatak merkeago jarriko, baña patatatik bakarrik ez da gizona bizi...

1990 Batuak ilko ote ditu Euskera guztiak?

ANES-1966




---

# IZERDIAK

---

M. **Hernandez'ena**

---



Itxasoan aurkitzen urak bere zeru irrikatua  
t'izerdiak bere ozertza, bere ego eta izkanbilla.  
Arbola bat da izerdia, beti ganez ta gezaltsua,  
olatu bat gosekilla.

Munduaren adin zaarrenik zaarrenean dau iturria  
t'andik datorkigu lurrari bere edalontzia eskeintzen,  
tantorik tanto, egarrien ta gatz guztien azkurria  
gure biziak argitzen.

Igidura guztien seme ta eguzkiaren lengusu,  
negar malco garratzen anal, larrainera jaurti daroa,  
udalen data, naiz udazken, uda gori dala, naiz negu,  
ayen-bedar urrezkoa.

Nekazariak, goizaldean, goldeari euren bularrak,  
atsedenaldiak iraultzen soloetara direnean,  
isil-isila ta urredun izerdi berozko txamarra  
jantzi daroe soinean.

Langilleriaren soineko urre-gorritz bete betea,  
begi-ninien eta esku gogortuen apainduria.  
Ba dabil naro eta jori usain gozotzen aizea  
galtzarpeko euria.

Aberastutzen doa eta umontzen lurraren gozoa,  
jausten doa negar maluta neketsu ta laboraria,  
gizonen eta Iugintzaren mana zuri zerutikoa,  
nere kopet-edaria.

Iñoiz izerditu bakook, igar zareenok ta kikil,  
alperkerian beso bako, ez pororik, ez kanturik.  
Poro irekien koroirik ezingo dozue erabil  
ezta zezenen indarrik.

Likitsetan biziko beti t'itzalita zaree ilko:  
Soina atalik atal lanari, izarrak bezela, josia  
darabillen gizon zindoan orpo nekatuetan dago  
edertasunen gorria.

Makur gogor, ene lagunok, lanari zeuon bokokiak.  
bere uyol geldiekin ta beira gozodun ezpatekin  
garbituko zaitue danok eta argituko izerdiak  
ta danok doatsu egin.

Euskeraz:

A. BIDAGUREN A.

## VI APAIZAK

Apaizak Gotzañen laguntzailleak dira. Gotzañak euren eskubideen eta almenen zatia damotse apaizai. Apaizak Gotzaien, Aita Santuaren eta Jesukristo Beraren prez-kariak dira Eleizan. Gotzañak ezin leike berak bakarrik bere eleiz-barrutiko ardura izan. Ezin leikez bete berak bakarrik zeregin guztiakbete. Ezin berak bakarrik eleiza guztiak ikusi; ezin berak bakarrik irakatsi, meza esan, autortu, ezkontzak egin, azken-sakramentuak banandu. Apaizak daukoz orretarako; onein bidez zuzentzen dau bere eleiz-barrutia. Gotzañak dagiz apaizak gero errietara bialduz eleizen eta kristauen ardura izan dagien.

Apaiza apaiz dan aldetik, ez da Laterriaren menpeko; ez dau artzen gizonakandik bere nagusitasuna, bere eskubideak. Laterri-agintariak ezin kendu leikeoz apaizari bere eskubideak.

Zelako eskubideak daukoz apaizak? Irakatsi, santutu ta zuzendu. Kristauai irakatsi, kristauak santutu, eta otoitzaren eta sakramentuen bitartez eta zerunruntz zuzendu.

### APAIZAREN EGINKIZUNAK

Apaiza zeru ta lurraren, au da, Jainkoaren eta gizonen bitarteko da.

Apaizak erlijioa irakasten dau. Apaiz izan aurretik urte asko egin bear izan dauz ikasten. Ondo gertuta dagoz ainbat gaietan batez be erulijio-gaietan. Eta apaizak erlijioa irakatsi bear dautse erritarrai.

Apaizak eleiztarrak santutu dagiez. Auxe da euren elburua. Iru bide daukez orretarako: otoitza, meza ta sakramentuak.

Andia egiz apaizaren elburua! Andiak benetan bere eskubideak!

Batikano Bigarrenak argi ta garbi azaldu ebazan apaizaren izatea, sortzea, eskubideak eta nagusitasuna. Ona bere itz batzuk: "Apaizak naizta euki ez apaizgo gorena ta bere almena Gotzañaren agindupean izan, eurekin bat eginda dagoz apaizgoan eta Eukaristian.

Itun Barriko egizko apaizak dira Kristo Apaiz Nagusi Betikoaren irudira, ebanjelioa irakasteko, erritarrak zuzentzeko ta Eukaristia egiteko. Kristo Bitarteko bakar-raren erkide izanik guztiau iragarten dautse Jainkoaren itza. Baiña Eukaristian dagie bereziki euren lanik onena."

Kristoren ordezkari dira ta bere Eskutapena iragarri Kristo Buruaren oparia ta erritarren otoitzak batzen dabez. Bakoitza bere mailian Kristo Artzain Buruaren

ordezkari izanik anaitasun eta batasun-eran batzen dabe Jainko-sendia ta Jainko-Aitarenganaiño eroan daroe Kristo bitarteko dala.

Gogoz eta egiz gurtzen dabe Jaungoikoa erritarren artean.

"Apaizak Gotzañen lankide leial lez Jainko-erriaren aide Ian egiteko laguntza ta bide lez dira irakasten, Jaunaren legea gogoratzean irakasten dabena egiz sinisten dabe, sinisten dabena irakasten eta irakasten dabena egiten".

Apaizak euren ardurapean artzen dabe lanik asko egunero. Emon jaken jainko-artaldea santututen eta zuzentzen dabe Gotziña buru dala.

Batikano Bigarrena amaitu zanetik, ainbatgora-bera izan dira apazai buruz Batzarrak naizta laburkiro esan apaizgoari dagokiona, oiñarri sendoak jarten dauz apaizai buruz.

Oiñarriok gidari artuta, arrezkeri sakonkiro azaldu izan da apaizgoa, batez be teologoak Ian sakon-mamitsua egin dabe arlo onetan. Bardin eleiz-gizon argi ta enparauak liburu ta aldizkingien bidez. Orobat ainbat eleiz-barrutietan.

### APAIZAK GOTZAÑEN MENPEKOAK

Batzarrak beti be Eleizaren aozko abitza artu dau bidetzat apaizai dagokiona esateko.

Trentoko Batzarrak ebatsi eban apaizak Gatzañak baiño beeragoko maillakoak zirala.

Batikano Batzarrak argibide bi dakarz au indartzeko: 1'go: apaizak ez dauke gotzaigo-maila; 2'grrren: gotzailien menpean dagoz euren eskugo-ekintzan.

Gotzaña lenengo apaiz lez Eleizan. Apaizak ez dauke apaizgo-gaiña; alan be egizko apaizpuruak dira Paulo doneak ebartarrei eberterrei diñotsenez. Gotzaña Kristoren ordezkari zala iñoan Antiokiako Inazio doneak, apaizak barriz apostoluenak.

Apaizgoari buriz apaizak eta Gotzañak bardiñak dirala diño Batzarrak, naitz xerarkiari buruz izan ez.

Batzarrak gogoratzen dauanez apaizak Jainkoaren itza iragarteko artu eben euren eskugos, baiña dirudiane z Gotzañaren baimena bear dau.

Apaizen beste zeregin-egiterau bat gogoratzen dau Batzarrak: euren zeregiñik bikañena Eukaristia dabela. Bardin irakatsi eben lenengo Trentoko Batzarrak eta

XII'grren Piok. Antxiña —laugarren gizaldirarte— gotzaiñak bakarrik egin oi eben Eukaristia; geroago baiña apaizan agiri dira zeregin onetan.

Ezbairik barik apaizak gotzaiñen menpekoak dira, baiña itzik egokiena Batzarrak darabillena leiteke: lagunkide arduratsuak.

Ez da asmatua. Paulo doneak darabil itz au. Antiokiako Inazio donez da maxu onetan.

Sarri aitatuten dau presbiterium izena ta bere tankerata arloa be jarten dau.

Eleizaren xerarkiaren tankera itzokin adierazten dau: "gotzain bat bakarra dago, presbiterioagaz eta diakonoakaz batera. Urteak joanaz gotzaiñen eskugoak indarra artu eben eta presbiterioak indargetu ta il egin ziran. Batikano Bigarrenaren ondoren Eleiza guztian jarri dira presbiterioak. Presbiterio onek asko lagunduko dautse gotzaiñi.

## GAURKO ALDAKETA APAIZAI BURUZ

Gora-bera andiak izan dira mundu osoan Batzarren ostian apaizai buruz. Apaiz askok itxi egin dabe

apaizgoa. Sekularizatu egin dira. Euskaldun apaiz asko be bai, bai abadeak, bai pralleak. Apaizgoa itxi daben gaienak ezkontza-bidea artu dabe. Miolak dira. Zer jazo da? Zeek egin dau au?

Eztabaida andiak eta ezbaridiñak sortu dira aspali onetan apaizen egoera ta bizitza dala-ta. Apaizak ezkongeak izan bear dabele? Ezkonduak izan leitekezela?

Batzarrak ezer ez dau ebatsi gai onetaz. Aita Santua ezkongetasunaren aide agertu da beti-beste asko ta asko apaizen ezkontzaren aide dagoz. Gauza bat dago argi: auzi au Eleizaren na da. Eleizak ebatzu bear dau. Eleizak onetarako eskubidea dau Berak jarria baita legea. Eleizak ardurua andia dau apaizari buruz. Aspaldion seminarioak erdi-utsi aurkitzen dira; Euzkadin be bai.

Dana dala: maitasuna, menpekotasuna ta laguntza apaizari. Jaungoikoaren ordezkari da. Jesukristok lurrean asi eban lana jarraitu bear dau apaizak. Bear-bearrekoa dau Eleizak, bear-bearrekoa erriak apaiza bere azken elburua lostu dagian.

Zoriontsuak apaiz jakitunak eta onak eta langilleak daukazan erria.

Eta Euzkadik apaiz jakitun, on eta langilleak daukoz.

# VII DIAKONOAK (1)

Ba-zan Eleizan xerarki-mailla berezi kristau-erriaren lenengo aldietan: **Diakonadutza**. Diakonadutza au bera izan da beti Eleizan mendez-mende. Apaizgoaren urren-go maillan egoan. Bera, bardiña ta aldatu-eziña zan arren era bereziz eta premiñak eta aldiak eskatzen eben lez erabili oi zan.

Sorkaldeko ta Sarkaldeko legeak ezbaridiñak ziran-gure egunetan diakonadutzari buruz. Sendi-aitak ziren diakonoak Sorkaldean, Sarkaldeko Eleizan ostera apaizgorako zubi ta bide lez.

Diakonadutzak liturji-eginkizun batzuk bakarrik eukazan gure artean. Bigarren Batikano Batzarrak lege barriak jarri dauz diakonadutzari buruz. Ona zelan dagoan itzez-itiz diakonoen erabagi-gaia "Eleiz-xerarkia" buruaren azkenean: "Egungo egunean diakono izatea apaizgora igoteko mailla bat besterik ez ei da. Baiña leenago ez zan orrela ez aldi orotan, ez aide orotan. Eta gaur be diakonadutza barriztatu daiteke mailla berezi ta iraunkor bat bezala, gogoan zaintze-lanetarako ondo baita etorriko Eleizari irudituko jakonean: bai leku batzuetan, baita leku guztietan be, onela uste izan ezkerro. Ta Eleiz-zizendariak dagokie erabagitzea, diakonoan ezkongeak izan bear daben ala ez".

Batzarrean bildutakoak ez ziran iritxi batekoak, baiña geien-geienak gura eben diakonadutza barriztatzea

ta indartzea. Diakonoak ezkonduak ala ezkongeak izan bear eben galdetu zanean eztabaida andia sortu zan batzar-aretoan.

## IRITXI EZBARDIÑAK

Autatzeak gogoan eukita diakonadutzaz iritxi ezbaridiñak azaldu zirala esan bear.

Amerika-aldeko ta misio-lurraldeetako Gotzaiñak ezkonduen diakonadutza begi onakin ikusten eben; Aai-zak ugari eukezenak oster ainsteste ez. Alan be bildutakoen zentzuna ta gogo ona laster azaldu zan. Onala iñoan Maurer Bolibiako Sucreko Gotzaiñak: "Diakonoen premiñarik ez daben Gotzaiñak, arren eta arren, eta Kristori eskerrak agerturik, ez beitez jarri Batzarren erabagiaren aurka. Bardin iñoen Amerikako ta misio-lurraldeetako Gotzaiñak. Ainbat eragozpen menderatuta Batzarrak ateak zabaldu eutsazan gurari oni.

Trentoko Batzarrak be erabagi berau artu eban, baiña ez eban izan indarrik.

Diakonadutza barriztutzea erabagi zan arren Trentoko Batzarrean, aaztuta egoan Eleizan.

Bigarren Batikano egin baiño utte gitzi aurretik zerbait idatzi zan gai onetaz.

---

## ELEIZA

---

### BATZARRA TA LEEN ELEIZA

Eleizaren lenengo bidea artu eban Batzarrak diakonadutza barriztutzeaz. Diakonoak asieran agiri dira. Apostoluak sortu ta irasi ebezan diakonoak. Apaizetatik eta gotzañetatik apertekoa zan euren, lana, euren zeregiña. Eleiz-xerarkian. Askea ta ezbarðiña. Argi ikusten da au Eleizaren edestian.

Apostoluen Egiñak eta Paulo donearen idazkiak dauskenez, lenengo kristau erriak tankera ezbarðiña eukan gaurkoa gogoan dala. Egitamu zabala, andia eukan diakonoak eleizkizunetan-da Igarleak eta maxuak agiri dira Ebanjelio-zabalkundean apostolui laguntzen, baiña apaiz-ikurri ez ebela, gaurko apostolutzakoak antzu. Gero xerarki lez eta eleizkizunetan-da apaiz-gotzañak lenengo maillan apostoluakaz batera.

Paulo eta Bernabek Asia Txikian sortu ebezan onelako langille-laguntzalleak eta Santiagok be ba-eban Jerusalenen apaiz-taldea ta apostoluen ondoan xerarkiko lez. Gotzañen ondoan eta zerarki-maillan agiri dira diakonoak be. Au olan-da gotzañen eta diakonoen tarteko ezbardintasuna gotzañen eta apaizen tartekoa baiña andiagoa dala dasakegu.

Paulo doneak egindako idazki batzuk egizegiztuten dabe au. Pilikoei egindakoa onela diño: "Paulok eta Timoteok Jesukristoren morroi oneik Pilipon zagozen Jesukristoren deun guztioai, gotzain eta diakonoai".

Timoteori egindako lenengoan diakonoaren onoi-menak gogoratzen dauz: Diakonoak berebat orretarako egokiak izan bear dab, ez arpegibikoak; ez dagoela ardao askorik edan, ezta diruzaleak izan be". (Timoteori, lenengoa, 3-8-10).

Apostoluen egunetatik gero diakonutzak indarra artu eban Eleizan. Oso garrantzitsua zan. Forgetek diñoanez erri danetan egozan diakonoak bigarren goizaldi-erdi baiña len.

Apostoluak errietatik-zear irakasten ebizanean gotzañak eta diakonoak jarten ebezan-diño Clemente Erromatarrak. Eleiz-buruak ardura andiz eukan diakonadutza.

Gotzain eta diakono duiñak, otzanak eta ez diruzaleak aukeratu daitezela —diño Didache liburuak.

Neure morroikide —diño Antiokiako Inazio doneak Zolion diakonoari. Jesukristo Bera ba'litz euki dagiela diñotse eleiztarrai. Iritxi bera dabe Polikarpok eta Alejandriako Klemente doneak. Zipriano doneak irakurleak, exorzistak, akolitoak eta subdiakonoak aitatzen dauz.

Egiñak liburuak diñoanez zazpi bakarrik izan bear eben diakonoak Kanonak irakasten dauanez. Edestiak diñoanez Pabiano Aita Santuak zazpi zatitan banandu eban Erroman Eleiza aurbidez ta zazpi diakonoai leporatu eutsen. Gaurko Kardenalek aurrekoak kez zirala bide.

Indar eta aintza andia iritxi eban diakonadutzak asieran Eleizan. Jeronimo donez bildur zan indar onek apizgoa bera illunduko ete eban eta adorez jakin-erazi bear izan eban diakonadutza baiña beeragoko maillakoa zala xerarkiari buruz.

Eleizaren edeztian ikusten danez diakonadutza indarra artuz ioian Eleizan eta bere berezitasunak eukazan.

### DIAKONADUTZAREN ALDEKETAK ETA BARRIZTATZEA

Diakonadutzak aldaketa andia izan eban irugarren gizalditik aurrera. Zezareako Batzarrak diakonoak zazpi izan bear zirala agindu eban arren, geitu egin ziran. Laugarren gizaldian 30 ziran Alejandrian; 39 Edesan. Eun bat bai Roman laugarren gizalditik. Konstantinoplan eun baiña geiago ez zeitezela izan agindu bear izan eban Jutinianok. Aleen eta eskubide andiak izan ebezan diakonoak Eleizan arrezkero. Indarra galduz joan zan diakonadutza geroztik; apaizgorago bide lez bakarrik geratu zan. Onela eldu zan gure egunetaraiño. "Serbitsu" lez agertzen dau diakonadutza Bigarren Batiakanok. Jainko ta Eleiz-serbitsu. Bigarren Batiakanok ez dau jarri araudi berezirik diakonoaren egitekoari buruz.

Batzarrak ez dauz berezitu diakonoen mugak eta egiteak. Eleiz-Barruti bakoitzaren eskuetan izten dau.

Argi dakar Justino doneak zelan egiten zan Eukaristia: "diakonoak ogia, ardao ta ura emotsazan aoiazari ra eukaristia bananduten eutsen an egozanai.

Andikiro ta agirian egin leikan bataioa batzutan; bataioak egiten lagundu beti apaizari. Zipriano deunak diñoanez il-zorian egozanak eta gexoak diakonoagaz egin lekien autortza apaizik ez pa'zan. Zelako autortza zan ez dakigu. Ez dakigu orobat zelako parkapena zan. Pekataria damutu zeikean eta Eleizagaz bakea egin diño geienak. Kolsonen eritxia ostera beste bat da. Diakonoak beti be pekatuak parkatzen ebezela diño, baiña Gotzañaren izenean. Onela jarriatu eban XII gizaldirarte. Poitierko Eleiz-Barrutiko Batzarrak debekatu egin eban 1280'grreanean.



## VIII DIAKONOAK (II)

### DIAKONOEN ZEREGIÑIK GARRANTZITSUENAK

Diakonoen zeregiñik garrantzitsuenak liturjia zuzentzea zan. Diakono batek zaintzen ebazan eukaristi-opariak. Beste diakono batek eleizara sartzen ziranen ardura eban. Eurek esan bear eutsoen bakoitzari non jarri be. Ezkondua, ezkongea, añarguna, sinnesgea, bataiatua, katekumenoa ba'zan gogoan euki bear eban. Eurek arduratu bear ziran Gotzñaren itzaldi-biratean lorik eta itzik egin ez egien. Eurek zuzendu bear eben otoitza, batzarra zelan ioian, eta abar. Batzarrek argi azaldu dau diakonoaren liturji-lan au. Len eukazan eskubideak begeitu egin dautsoz. Ona bere itzak: "Diakonoari dagokio nagusiaren aginduaren arauz, andikiro batatzea, eukaristia zaintzea ta banatzea, ezkontzak Eleizaren izenean egitea, il-zorian dagozanai Eukaristia eroetea; eleizkizunak eta kristauen otoitza zuzentzea. Sakramentu —antzekoak banatzea, illetak egitea" (C129).

Eleizkizunak eta kristauen pitza zuzentzea esatean, Itza iragartzea esan gura dau Batzarrek seguru asko.

"Apaizik ez dan tokietan igandeta jai-egunetan mezarrik esan ezin ba'da, eleizkizun bat jarri beite Gotzñaren iritxiz Itza iragarteko. Au diakono batek zuzendu leike, edo erri-gizon batek, orretarako bereziki aukeratua.

Ikusten danez Batzarrek geitu egin dauz diakonoaren eskubideak.

Diakonoak ba'ebazan lendik be alako eskubide batzuk Kodigoak emonda. Nozean bein apaizik ezpa'zan, bataiatu eikean. Gure Jauna banandu ta agirian jarri, onespen batzuk emon. Batzarrek azken mugaraiño luzatu dauz diakonoaren almen-ekubideak.

### ITZA IRAGARRI

Diakonoak Eleizaren asieratu eukan bere arduruan Jainkoaren Itza iragartzea.

Batzarrak indarra emon dautso oitura oni. Izan be garrantzi andia dau onek kristau errian. Ebanjelioa ta apostoluen idazkiak irakurtzen ziran. Batzar-buruak azalpen egin oi eban entzuleai egokien jakenez. Apaizak eta diakonoak izaten ziran geienetan beintzat maxu-buruok. Esteban eta Felipe diakonoak agertzen dira zeregin onetan.

Diakonoak Igarle ta maxu lez dagiela serbitsua gogoratzen dautse Didache kristauai. Kristau erriari irakatsi

dagioela diñotse Zipriano doneak diakonoai ta "Traditio apostolicak" batzarrean dagozanai irakatsi dagitsela.

Erromak pontificala ez eutsen kendu diakonoai eskubide au, alan begitxitan egin izan dabe Trentoko Batzarren ondoren.

Itzok diñoz Batikano Batzarrek (Bigarrenak) gai au azalduz: krisatauai Idazteuna irakurri, erriari irakatsi.

Batzarrak oartzen dauanez, diakonoak ez dabe irakatsi bear izlari lez, mezulari ta ebanjelio-eraille lez baiño.

Itzaldiak egin leikez, baiña itzaldiak egitea apaizai dagokie geien baten.

Diakonoak gotzñaren baimenaz egin bear dau gutti au bere serbitsurako dago-ta.

Onela diño Trentoko apostolicak: "diakonoa xerarkiari buruz zein maillatan dagoan jakin-erazteko. Diakonoa ez da apaizgorako egiña, gotzñaren serbitsurako baiño, onek agintzen dautsona egiteko.

Diakonoaren beste eginkizun batzuk oneik dira: gotzñari jakin-erazo erriaren ezbear eta gurariak; gizartegoraberak; gaxoak nortzuk diran eta non bizi diran gotzñak ikusi aldagizan. Ikusten danez ar-emon andia egoan gotzñen eta diakonoen artean.

Diakonoa gotzñaren ordezkari lez zan len. Ba-eukan onek ariskurik naiko. Bigarren Batikanok kendu egin dau arrisku au. Gotzñaren serbitsurako barik, erriarrensersurako izandaitezela erabagi dau Batzarrek. Jakiña gotzaiagaz eta apaizagaz alkartuta dana.

### DIAKONOEN EZKONGETASUNA

Eztabaida andiak sortu-erazi ebazan Bigarren Batikanon diakonadutza barrizteak.

Ezin ekarri bertako iritxi ta jazoerak geiegi luzatuko leiteke-ta lantxu au. Auxe bakarririk esango.

Eleizaren lenengo gizandietan ez zan diakonoen eta apaizen ezkongetasuna debekatzen eban legerik. Irugarren gizaldirarte beintzan sorkaldekoentzat ez eben jarri apostoluak onelako legerik. Aurrerantzean be onela jarraitu eban. Ori bai diakonoa ezin ezkondu zeitekean bein diakonadutza artu ba'eban. Elvirako Batzarrek jarri eban lenegozgotzaien, apaizen eta diakonoen ezkongetasunalege lez irugarren gizaldian. Geroago egin zan Nizeako Batzarrek ez eban gura jarri lege au. Sorkaldean oster

## ELEIZA

ezkongetasunak indarra artu eban. ezkonduak sendi-ardura geiago eukiko ebela-ta eliz-ardura baiño.

Letrango ta Trentoko Batzarrak eragozpen lez jarri eban ezkontza diakonoentzat.

Bigarren Batikanok ostera barrizte andia egin dau sarkalderako gai oni buruz.

Gizon elduai diakonadutza emotea ontzat artu dau naizta ezkonduak izan. Ontzat artu da antxiñako oitura ta ezkonduak gazteai emotez barriz ez da ontzat artu. Diakonadutza barriztea Batzarrean bildutako guztiak ontzat eukela dasakegu. Diakonadutzak jainkozko sortzea izan dabela esan bearra-da, naizta Kristok Berak ez eta apostoluak jarria izan Eleizan. Kristok Berak jarriko eban noski diakonadutza eta apostoluak diako-noak.

Teologoak eta edeslariak ez dira iritxi batekoak gai onetan. Erri bakoitzek Eleiz-barrutien eskuetan itxi dau Batzarrak bai diakonoak sortzea ta bai euren eginkizunak zeintzuk eta noraiñoak izan leitekezan erabagiztea. Dana jakiña Aita Santuak izenpetuta.

Geien baten apaiz-urritasunak bultzatu eban Batzarrak diakonadutza barriztutzea. Apaizai laguntzeko; apaiz eta leikoen bitarteko izan zeitean.

Batzarra argi mintzo zan diakonadutza barriztutzean. Gizon elduai —Moan— emon leikeoe diakonadutza naizta ezkonduak izan; gazte duiñai be bai; baiña oneintzat ezkongetasun-legeak zutunik jarraituko dau (CI 29). Batzarrako geienen iritxia diakonutza sendi-aitai emotea zan. Iritxi ederrak ata onuratsuak agertu ebezan beste askoren artean Hornek, Alemaniako Fuldako auzitegi-gizonak, Lepargneur eta Denis Aitak eta abarrekk.

### DIAKONADUTZA GAUR

Oinkada andia egin dau Eleizak diakonadutza barriztutzeaz. Apostoluen egunetan jarritako diakonadutza erdi-ilda egoan, ez eban alako lan berezirik, eginkizunik Eleizan.

Zorionez ainbat nazio ta barrutietan barriztu da diakonadutza. Ipar Amerikan zortzi milla diakono ziran 1988'grenean; milla ta bosteun milla Sarkaldeko Alemanian; Españan larogei bakarrik ziran urte orretan. Euzkadin be sartu da, baiña ez dau izan alako arrera andirik. Ondo etorria ta onartua bedi diakonadutza gure errian be oso onurakorra izango baita Eleizarentzat.

## IPUIN-SARIKETA

### (BILBOA'KO UDALAREN BABESPEAN

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

—Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearco dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

—Ipuiñak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

—Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2.<sup>a</sup>, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

—Sariak lau izango dira:

1.<sup>a</sup> 40.000 pezeta

22 30.000 pezeta

32 20.000 pezeta

4.<sup>a</sup> 10.000 pezeta

—Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

## DESFASADOAK ETA BIBOTEAK

—Oiek dituk desfasados. Ez ditek Batuarik erabiltzen-da.

—Euskaraz ari diranei esateko itza al dek ori? Esan ezak on euskeraz. Oiek desfasados eta i fasean sartzeko oraindik.

—Desfasados zer dan edozeiñek ezagutzen dik.

—Erdaldunek baietz esatera ninjoan; baiña, ez zekiat erdaldunak eurak ere desfasados zer dan ulertzen ote duten...

—Ezetz? Des-fasados, fasetik pasiak. Orra gauza garbia.

—Eta, zer fase dek ori? Illargiak ere bere faseak eta bere aurpegiak ba dizkik: ilgora, ilbera, illargi berria, illargi betea eta tarteko beste guztiak. Noiz zegok illargia bere des-fasean...?

—Nik ori ez zekiat; baiña, persona bat desfasada noiz dagoen, ori bai bazekiat.

—Ori topikoren bat izango dek.

—Zer topiko gero! Des-fasados, fasetik kanpora.

—Modatik kanpora, alegia? Eta ire biboteak zer dituk fasados ala desfasados?

—Ni fasean nago.

—Ilgoran ala ilberan...? Illargi berrian ala illargi betean...? Orain ogeita amar urtetik gora, geure gurasoek izugarrizko ille-matasak zituzten sudurpean... Bizarra kentzeko tresna berriak sortu ziranean, bibotedunak desfasados gelditu ituan, muturrak garbi. Eta orain ogeita amar urtetik gora bere fasetik pasiak al dituk orain fasedunak...?

—Zergaitik ez...?

—Ilberan zaudetela, alegia...? Zuek bezela pentsatzen ez duan guztiak dituk zuentzako desfasados. Faseak eta modak sortu orduko aldatzen dituk. Moda-aparretan ibiltzea dek norberentzat bistosoa norbere burua agertzeko eta illargiaren antzera gora ta beera ibiltzeko... Orretarako oiñarri gutxi bear da.

—Zuek zerate oiñarri gabekoak. Oiñarri utsekoak.

—Zuek, berriz, fase billa atzeraka joan zerazte eta gizonak bere pentsakeran oiñarria bear dik eta ez bakarrik modan ibiltzeko asmoa. Fundamentu apur bat, edo funtsa fasadoak diotenez, oiñarri bezela... Nere amonak, sudurpean biboteak ezezik, bazuan funtsa ere bere kolkoan eta, badakik zer esaten zuan...?

—Neri ire amonaren esanak ajolik ez, didate sortzen.

—Ala ere esango diat zer zion: modak eta faseak, alegia, saku zaar bat dirala, goitik bezela azpitik ere zuloa duena: azpitik ateratako trapuak goitik sartu. Orra zer dan modan eta fasean egotea. Zuek orixe egin dezute: desfasatuta zeuden trapuak azpitik atera eta gaiñean ipiñi eta ori onartzen ez duen guztia desfasado bezela jo.

—Zuek ez dakizute gaurkotasunaren berririk. Arri biurtutako dinosaurio batzuek besterik ez zerate.

—Soñeko bat izan guztokoa eta illargiak in batera aldatzen ez ba'dezu, ori al da desfasados izatea? Emakume gazteak aldatzen dituzten euroen soñekoak goizetik gabera emeretzi aldiz, sakela bete diru kostata, ordea.

—Zuekin izketan egitea alperrikako lana dek, eta banoa zuetik.

—Faseak laister alda oi dituk. Moda ez dek sekulan geldi egoten eta zuen faseak buelta ematen asia dek. Agur, agur eta bueltara arte.

# Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

## Bizkaia beti.